

- **3. Mozioa, Leopoldo Barreda de los Ríos Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, Batasuna legez kanpo utzi izana eta Estrasburgoko Auzitegiaren epaia betearaztea direla-eta, Eusko Jaurlaritzak dauzkan asmoei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [\(09\11\03\00\0016\)](#)**

Gaurkoan alderdi sozialista eta alderdi popularra **sententzia baten legitimazio politikoaren bila etorri dira legebiltzarrera**, ariketa ez-ohiko batean, eta **agerian utziz, legitimatu beharra sentitzen dutela, hain justu sententzia horren atzean dagoen Alderdien legeak legitimitate gabeziak dituela badakitelako.**

Sententzia bat politikoki legitimatzen dela uste denean, beharra duzuela delako da.

Proposamenaren lehen puntuan gauzak bere horretan jarraitu dezaten eskatzen duzue. **Ez duzue bakea eskatzen, bakea ez delako zuen helburua. Ez dago testu osoan bakea ez elkarbizitza hitzik.** Gobernuak jarrai dezala ETaren indarkeriaren deslegitimazioarekin. Beste behin ere, zehaztu ez den termino batez ari gara, dena kabitzen den zaku bilakatu dezuen terminoaz eta indarkeriaren aurka egitearen aitzakian oinarritzko eskubideak zapaldu dira, elkartzeko eskubidea, aldarrikapenak egiteko eskubidea, eskubideen urraketa egiteko eskubidea eta baita, biktimei oroimen ekitaldiak egiteko eskubidea.

Horretarako beharrezkoa bada, Euskadiko Auzitegia Gorenaren epaiaren gainetik pasatzea, pasatuz. Beharrezkoa baldin bada, gure herrietako giroa eta elkarbizitza gaiztotzea gaiztotuz. Edo hobeto esanda, bide batez giroa gaiztotzea lortzen badugu, hobeto. Eta guk horren aurrean argi esaten jarraituko dugu: indarkeriaren zentzugabekeriaren gainean pedagogia sozial eta demokratiko asko egin behar da bai, ez bakarrik gazteen artean, baizik eta gizarte osoaren aurrean, baina horrek hain justu gobernu berria jokatzen ari den kontrako noranzkoan aritzea eskatzen du:

1. Elkarbizitza baketsuaren balioa piramidearen goikaldean jarritz. Bakea nahi badugu, bakearen alde lan egin nahi badugu, bidea ezin da inoiz izan elkarbizitzako giroa tenkatu eta gaiztotzea. Bakea da gure helburu nagusia, guztiona. Eta bakearen alde bidea inoiz ezin da izan bidea elkarbizitza giroa tenkatzea eta gaiztotzea.
2. Indarkeriaren aurreko begirada irekiagoa izanez: ETaren indarkeria da egun hiltzen duena, baina ETaren indarkeria ez da izan bakarra eta ez da gaur egun ere indarkeria espresio bakarra. Eta ez iezadazue esan ekidistantzia faltsuetan erortzen ari garela. Ez gabiltza konparazioak egiteko eskatzen, baizik eta errealitatea bere osotasunean ikus dezagun exigitzen. Edo, benetan uste duzue indarkeriak zentzurik ez duela argumentatu dakiokeela norbaiti, aldi berean bere eskubideak nola murrizten dizkioten ikusten duen bati? Zer lortzen dugu eskubideak murriztuta? Gorrotoan sakontzea eta ondorioz indarkeriarako aitzakia bat gehiago emate, ez besterik.
3. Zuek gobernara iritsi zarenetik abian jarri duzuen ustezko “deslegitimazio estrategiaren” ondorioz, inoiz baino presoen argazki gehiago egon da gure kaleetan; aspaldian baino gorroto gehiago piztu duzue Euskal gizartean; **suari gasolina botatzeari ekin diozue**, jakinaren gainean, eta jakin badakizue arduragabekeria horretan ez gaituzue bidelagun izango.

Bestetik, alderdien legea eta ilegalizazioaren gaineko irakurketa politikoa dator, enegarren aldiz. Legebiltzar honek hainbatetan agertu du bere kontrakotasuna Batasunaren eta ezker abertzaleko sentsibilitate horretako beste alderdien ilegalizazioen aurrean. Azkena 2008ko urriaren 14ean, EHAKren ilegalizazioaren aurka. Baina gaur berriro ere gai hau ekarriz agerian uzten duzue PPK eta PSEk, zuen burua zuritu eta zuek osatu duzuen gobernu legitimitatu beharra sentitzen duzuelako.

Oraingoan Estrasburgoko epaia bidelagun hartuta, eta hain justu alderdien lege horrek ahalbidetu dizuten gehiengoaz baliatuz. Ba honen aurrean ere argi esango dizuegu:

- 1) Ez gaude ados Estrasburgoko epaiarekin. Ez baitugu bat egiten bere epaian dioen bezala alderdien legeak ez dituela eskubideak urratzen esatearekin. Are gehiago, oso larria deritzogu epaiak egoeraren arabera eskubide batzuk murriztu daitezkeela esatea. Ez dator bat Europak bere historian giza eskubideen defentsan izan duen tradizioarekin.
- 2) Eta bi, gainera, epai honek ez du hitz erdi bat esaten Alderdien legeaz. Epaia ez da, batzuek ulertarazi nahi izan duten bezala, alderdien legea berresten duen epaia. Eta beraz, ezin da horrelako interpretaziorik egin.
- 3) Alderdien legeak oinarritzko eskubideak murriztu edo ezabatzen ditu: ideologia askatasuna eta adierazpen askatasuna, asozioazio eta parte-hartzeko eskubidea. Eta gainera elkarbizitza baketsuari kalte egiten dio. Eta guretzat, elkarbizitza eta bakea balio gorenak dira, are gehiago gurea bezalako gizarte batean.

Eta horixe da jaso duguna gure osoko zuzenketan. ETaren indarkeriaren aurka, baina indarkeria horren aitzakiapean oinarritzko eskubideak murriztearen aurka. Eskubideak direlako. Elkarbizitza gaiztotu besterik ez duelako egiten.

Baina hori baino sakonagoa den zerbait ere badago: baditugu Alderdien Legea eta haren ondorengo epai guztiak, eta? Zer, arazoa konpondu egin da?

Arazoa politikoa da, indarkeriazko espresio ondorioarekin.

Baina gehiago esango dut. Orain termino absolutuekin ahoa betetzen zaizuen horiek alderdien legea, txikle bat bezala erabili duzue, kojunturaren arabera mugimenduak eginez, interes politikoen arabera malgutasun handiagoa edo hestuagoa erabiliz. Alderdien legea indarrean izan arren 2002tik aurrera, hauteskunderaz hauteskunde interpretazio desberdina egin da: 2005ean ez zetorkizuen ongi, eta ez zen aplikatua izan zedin eskatu, eta ondorioz EHAK legebiltzar taldea hemen izan genuen gure artean. Ondoren, ANVk udaletxe eta batzar nagusietako barruti batzuetan bai eta beste batzuetan berriz ezin izan zuen aurkeztu 2007an. 2009an, aldiz, batere ez. Eta EHAK talde parlamentaria gure artean zenean aho batez onartu genuen hurrengo testua, urrats handia izan zen testua:

“Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten du bere zalantzarik gabeko konpromisoa giza eskubideen eta bide baketsu, politiko eta demokratikoen alde. Berretsi, orobat, indarkeriaren, hura erabiltzearekin mehatxatzearen eta giza eskubideak urratzearen aurka duen jarrera”

“El parlamento vasco se ratifica en su compromiso inequívoco a favor de los derechos humanos y las vías pacíficas, políticas y democráticas. Al mismo tiempo, se ratifica en su postura contraria a la violencia, a la amenaza de su utilización y a la vulneración de los derechos humanos.”

Ipar Irlandako prozesuko Mitxel printzipioak indarkeriari buruz dioena hitzez hitz bozkatu genuen, 2006ko martxoaren 17an, aho batez, EHAK barne, ETAK sueten iraunkorra aldarrikatu baino 5 egun lehenago. Orduan balio zuenak, hots indarkeriaren aurkako jarrerak ez du balio gaur? Noizkoa du ba iraungitze data? Eta ez baldin badu balio, zein da zuen alternatiba? Ehun mila pertsona sozialki eta politikoki baztertzea?

Orain badirudi bidezidor estuenak ere hesitzeko garaia iritsi dela zuen ustez. Orain ez du ezerk balio. Ezta indarkeriaren kontrako posizioa hartzeko asmoa erakustek ere.

Eta aldiz, guk uste dugu Batasunari eta bere inguruari heldu zaiola erabaki alde bakarrek hartzeko ordua. Horrela uste dute azken asteotan argi utzi duten bezala, Batasunako hainbat kide eta buruzagik. Baina heldu zaio ordua ez alderdien legeagatik edo estrasburgoko epaiagatik. Heldu zaio ordua euskal gizartearen gehiengoak argi exigitzen diolako, eta batez ere **Batasunari heldu zaio alde bakarrek urratsak emateko ordua gero eta gehiago garelako ezkerrekoak eta abertzaleak izanik INOREN ZAIN egon nahi ez dugunak EZKERREKO ALTERNATIBA ABERTZALEA egiteko. Eta hori ikusi duelako.**

Baina orain zuek zarete Batasunaren urrats aldebakarrekorik nahi ez duzuenak, horrek hankaz gora botako lukeelako zuen eskema; bakearen lorpenen protagonismorik ez izatera eramaten zaituztelako; hauteskunderi begira zuen kalkuluak pikutara doazelako. Eta zuen eskeman, dagoeneko, BAKEA ez delako helburu nagusia.

Zuek ez duzue BAKEA bilatzen, zuek garaipena bilatzen duzue, gerra estrategiari lotuta dagoen garaipena; ez bakarrik militarra, baizik eta baita abertzaletasunaren garaipen sozial eta politikoa, horretarako estatu izateak, estatuaren babesa izateak ematen dizkizuen baliabide guztiak erabiliz. Iraganean ere egin izan duzuen bezala, oraingoan estrategia sofistikatuagoak erabiliz, baina helburu berarekin: abertzaletasuna gailentzea, gehiengorik izan gabe.

Eta helburua hori izanik, berdin zaizue bidean oinarrizko eskubideak zapaltzea, elkarbizitza gaiztotzea; BAKEA bera sakrifikatzea.

Elkar ulertzean oinarritutako bakeari uko egin diozue, hori da zure gobernu berriaren ekarpena, Lopez jauna, eta bakea eta elkarbizitzari uko egiten dion alderdia ez da inoiz gizartearen zentralitatean kokatuko, une bateko espejismotik haratago. Elkarbizitzan oinarritutako bakeari uko egin dion lehendakaria ez da inoiz guztion lehendakaria izango.

Horixe da zuen ekarpena, eta beraz, ez iezaguzue eskatu gainontzekooi, abertzaleoi gure izatearen ukazioa bilatzen duen strategiarekin bat egitea. Garaipen estrategia horren aurrean aurrez-aurre izango gaituzue, gehiengo demokratikoak ematen duen indarrarekin. **Zeren eta baliabide asko dituzue, bai, baina bat eta garrantzitsuena falta zaizue eta ez duzue izango gainera: gehiengo soziala, gehiengo demokratikoa.**

Izan ere, zuek alde batera utzi baduzue ere, herri honen gehiengoak BAKEA eta ELKARRIZKETAREN alde egiten jarraitzen du. Herri honen gehiengoa abertzalea da, eta gehiengo horren aurrean ez duzue zuen estrategia inposatzerik lortuko.

BIGARREN TXANDA

PPri:

Esaten duzu salantzarik gaben gehiengo politiko-soziala dagoela gobernuaren strategiaren alde, baina gaur osoko zuzenketa aurkuzeten dugun taldeon artean ????? boto ditugula eta zuek, UPyD gehituta, ???????. Beraz, gehiengoa dira, direnak. Datuak objektiboak dira.

Frantzian, badirela ilegalizazioak.

Ez duzu esan, Frantzian ez duela eduki espainiak izan duen lotsagabekeriarik: BAtsuna legala da Frantzian. Nola sustengatzen da hori?

Pastorri:

Bestetan baino gehiago haserretu zara, eta ez dut uste bereziki beroa izan denik gaurko giroa.

Esaten zenigun defentsiban gaudela, baina oso lasai gaude

Batasunak urratsak eman behar dituela Garbi dago, baina erabat konbentzita nago Batasunak gaur daukan eztabaida baldin badauka ez da epaitegien erabakiengatik, baizik eta euskal gizartearen aldaketez jabetzen ari delako eta gero eta gehiago garelako ETAREN zain egoteko ez gaudelako prest. Eta hori da aldaketara bultzatzen duena, ez eskubideak murriztea.

Garbi dagoena da estatuaren estrategia dela eztabaida hori oztopatzea. Horrelako mentalitate aldaketa egin nahi bada, behar-beharrezkoa da haien arteko elkarriketa uztea eta ez oztopatzea.

Horregatik diogu, bidea berak bakarrik egin beharko duela, baina bidea egiteko oztoporik jarri gabe. Bide hori egiten duenean, gizarteak eskatuko diola eta bereziki ezkerrekoak eta abertzaleak argi utziko dugulako ez gaudela ETAREN zain egoteko prest.

Por la paz, un Ave María no. Por la paz, diálogo y encuentro. Algo que compartíamos no hace tanto tiempo. Elkarbizitarik gabeko bakerik ez dagoelako. Bakea nahi dugunok eta desberdinen arteko elkarbizitza baketsu eta iraunkorra nahi dugunok badakigu ezin dela ez gorrotoa erein ez bakea eraiki. Gobernu honek hasi duen, estrategiak ez gaitu bakera hurbiltzen.

Are gogorragoa egiten zait, mehatxurik egonik, bakea sakrifikatzeko prest agertzea beste helburu batzuetarako. Ikaragarria, baina hori da ikusten ari garena, bakea bigarren mailan utzi eta beste helburuetara zaudetela, nahiz eta horrek izugarrizko ondorioak izan.

Bista hauteskundeetan jarrira daudenak ez gara gu. Batasunak urrats aldebakarrekoak egin ditzala nahi ez duenak ez gara gu.

Zuek argi adierazi duzue, orain indarkeriaren kontra agertzeak ere ez du balio. Ez duzue nahi ez zaizuelako balio, batetik bakerako bidean protagonismoa galduko zenuketelako eta bakeari ordain politikoa ateratzeko aukera galdu nahi ez duzelako. Eta, bestetik, zuen kalkulu elektoralak garbiak direlako 2011ra begira: denok parte hartzen badugu ez delako hain erreza hemen egin dena beste leku batzuetan egitea.

Berriro diot, benetan sinisten dut, helburuak helburu, ikaragarria dela bide horretan bakea sakrifikatzeko hartu duzuen erabakia.